



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko irailaren 28a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa, Nafarroako Bai parlamentu-taldeak aurkeztua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko laguntza emateko 500 toki gehiago jar ditzan berehala. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala profesionalak kontrata ditzan Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berritzatzeko plan bat ezar dezan irakaskuntza publikoan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru Komunitateko herritarrei AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea ahalbidetzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Guraso Konfederazio Katolikoari (CONCAPA) idatziz eska diezaion legean jasotako aginduak ez betetzera bultzatzeari uzteko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Osasun kontseilariak kontzientzia eragozpenari heltzen ez dioten medikuen zerrenda bat agertzen duen gutun bat jaso duen jakitekoa, María Chivite Navascués andreak egina (12. or.).
- Galdera, euskaraz hitz egiten den beste lurralde batzuetako erakunde publikoekin euskararen arloko lankidetzaren harremanak izateari dagokionez Hezkuntza kontseilariak dituen asmoei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak udan geratu diren nafarrentzat eta turistentzat programazio egokirik ez antolatzearen arrazoiei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari Mendillorriko BHIaren eraikinerako eskaturiko obra baimenaren, jarduera sailkatuaren baimenaren eta irekitzeko baimenaren datei eta edukiari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Portugalia enpresak Iruña-Lisboa hegaldiak eteteko eta ondoren berriro abian jartzeko izan dituen arrazoiei buruzkoa, José M^a Vázquez Royo jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuterako Virgen de la Cabeza ikastetxean 2007-2008 ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak abian jartzeko asmorik duen jakitekoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren lehentasunen artean Zangozako ikastetxearen egoera aztertzea dagoen jakitekoa, beharrezkoa baita eraikuntza-azpiegitura egokiaz hornitzea, Ana Figueras Castellano andreak egina (16. or.).
- Galdera, 2002-2009 urteetarako errepideei buruzko II. plan zuzendarian aurreikusitako jardueren betetze mailari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (17. or.).
- Galdera, aireko ozonoari buruzko 1796/2003 Errege Dekretuari dagozkion urteko txostenei buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 33/2007 Ebazpena, irailaren 21ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena, María del Pilar Álvarez Asiáin arartekoaren aholkulari tekniko izendatzen duena (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa

1. artikulua. Xedea.

Lege honen xedea da gizarte laguntza izaerako laguntza osagarri bat ezartzea zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren (SOVI) pentsioak jasotzen dituzten pertsonen oinarriko beharrezanean erantzuteko, urritasun ekonomikoko egoerak arintzearen.

2. artikulua. Onuradunak.

Lege honetan ezarritako laguntzen onuradunak izanen dira SOVIren pentsioak jaso baina kontzeptu guztiak batuta —ohiko etxebizitzakoari dagozkionak salbu— dirusarrera gordinetan lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez direnak.

3. artikulua. Zenbatekoa.

Hauze izanen da lege honetan ezarritako gizarte laguntza izaerako laguntza osagarriaren zenbatekoa: onuradunaren SOVI pentsioaren baliabide ekonomikoei gehitu beharreko diru kopurua, lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko ehunera iristeko.

Urtero arautuko da gizarte laguntza izaerako laguntza osagarri honen onuradunak kasuan kasu jaso beharreko diru kopurua; horretarako oinarri gisa onuradunak egindako errenta aitortpena erabiliko da —edo administrazioak balioetsi nahiz kalkulaturakoa, baldin eta SOVI pentsioaren eta lege honetan ezarritako laguntza izaerako osagarriaren onuradunak errenta aitortpena egiteko legezko betebeharra ez badauka—.

Foru lege hau ez zaie aplikatuko SOVI pentsio baten onuradun aitortuak izan baina aurrekoarekin bateraezina den beste pentsio baten alde egiteagatik SOVI pentsioari uko egin diotenei.

SOVI pentsioa aitortua duten baina soilik osasun laguntzarako edo beste pentsio baten osagarri izateko onuradun edo titularrak diren pertsonen kasuan, jasotzen dituzten dirusarrera guztiak hartuko dira kontuan, gainerako kasu guztietan bezala, dirusarrera horiek pentsioetakoak izan nahiz beren urteko errentako beste kontzeptuetakoak izan.

4. artikulua.

Foru lege honetan ezarritako laguntza osagarria beti interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskatuta emanen da.

Eskaria egiten duenak edo haren legezko ordezkariak urtero eskatzaileak kontzeptu guztienegatik —eta ez soilik zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruarengatik— jasotzen dituen dirusarrerei buruzko datuak emanen ditu; datu horien egiazkotasunaren ardura izanen du eta eska dakioken edozein informazio osagarri emateko konpromisoa ere hartuko du.

Nafarroako Gobernuak bere baliabideez ziurtatuko du ematen zaizkion informazioak egiazkoak direla, eta bidezkoak diren informazio osagarri guztiak eskatu ahalko dizkie eskatzaileei.

5. artikulua. Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsiodunentzako laguntza asistentzial osagarrien gaineko kontrol administratiboa.

Foru lege honetan ezarritako laguntza izaerako prestazio osagarriak eten edo, kasua bada, deuseztatu ahal izanen dira haien onuradunak haiek eskuratzeko eskubidea ematen dioten baldintzak betetzeari utziz gero, edo laguntza eskuratzeari ahalbidetu zuen eskarian emandako datuak egiazkoak ez direla frogatuz gero.

Foru administrazioak administrazio-espedita abiaraziko du, eta interesdunari edo haren legezko ordezkariari entzunen die, bai emandako laguntzak eteteko bai haiek iraungi edo deuseztatzeke ere. Espedientea irekitzeko ebazpenak berekin ekarriko du kargua edo karguak formulatzea, bai eta instruktorea izendatzea eta, zuhurtasunezko neurri gisa, prestazioa etetea; laguntzaren onuradunak, berriz, deskargua eska dezake, eta bere eskubidearen aldeko frogak egin daitezzen ere proposa dezake.

SOVI pentsioaren laguntza asistentzial osagarria emateko erabili ziren datuak egiazkoak ez iza-

tearen ondorioz laguntzaren deuseztatzea gertatuz gero, laguntza hori jaso zuenak oso-osorik itzuli beharko du.

Deuseztatzea, ordea, baldintzak ez betetzearen ondoriozkoa bada, eta ez-betetze hori, betiere, laguntza jasotzen hasi eta gerokoa bada, deuseztatzeak espedientea irekitzen denetik izanen du eragina.

6. artikulua. Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

SOVI pentsioen laguntza osagarriei aurre egiteko, Nafarroako Aurrekontuetan behar diren diru kopuruak ezarriko dira dagokien kontusailaren kargura.

7. artikulua. Ondorio ekonomikoak.

Ebazpenaren ondorio ekonomikoek hiru hilabetezko atzerako eragina izanen dute, eskabidea egiten den unetik.

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko dio, foru lege hau onesten denetik gehienez ere bi hilabetezko epean, kotizaziopeko pentsioak, kotizazio gabekoak eta laguntzako pentsioak jasotzen dituzten pertsonen buruzko txosten sektorial bat, laguntza ekonomiko osagarriak emateko xedez, dauden desoreka sozio-ekonomikoak eta foru legeak bilatzen ez dituen bidegabekeriak zuzentzeko.

Azken xedapenetan lehena. Gizarte Ongizate kontseilariari esku ematen zaio foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak.

Azken xedapenetako hirugarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

ZIOAK

Nafarroako Foru Komunitateari dagokio gizarte laguntzaren arloko eskumen osoa, 1982ko abuztuaren 10eko Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 44.17 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Lege hau laguntza izaerakoa da eta “hirugarren mailako babes sozialtzat” har daiteke, zeren eta helburu baitu kotizaziopeko prestazioek betetzen ez dituzten eta Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko prestazio osagarri arautuek ere bere

baitan biltzen ez dituzten beharrizanei erantzuna ematea.

Hori dela eta, foru lege honen xedea den prestazioa ez da ez Estatuko oinarritzko legeetan ez Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoan ezarritakoaren aurkakoa, ez eta haiei buruzkoa ere.

Hori horrelaxe dela argiago uzteko, esan beharra dago Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Legeko 54. artikuluan aurreikusitakoa dela Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko dauden eskumen garrantzitsuenetako bat. Artikulu horren arabera, Nafarroari dagokio Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa, nahiz eta araubide horri buruzko arauak kanpo uzten diren. Eta Nafarroari dagokio, baita ere, Gizarte Segurantzaren arloko Estatuko oinarritzko legeria garatzea eta betearaztea, aurretik aipaturiko salbuespenarekin. Horrenbestez, foru lege honek ez ditu inolaz ere beretzat hartzen Estatuko oinarritzko legeei dagozkien arloak, ez eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoak egituratzen duten arauak edo Estatuko goi-kuskaritzari dagokiona ere. Aitzitik, osagarria eta laguntzako da, eta, horrenbestez, haren aurka aurkezturiko edozein konstituziokontarakotasuneko errekurtsotan defendatzeko modukoa ere bada.

Ez dugu ahaztu behar, halere, foru lege hau onets dadin bultzatzeko oinarritzko arrazoiak justizia soziala dela, hau da, nafarren artean milako gutxi batzuen —ehunka ere kontu litezkeenak— egoera aitortzea, hain zuzen ere bizitza oso bateko lana lur honetan utzi dutenak baina askotan behar bezala kotizatzerik izan ez dutenak, baldintza eta sektore kaskarretan egin behar izan baitute lan; izan ere, jakina da gaur egun zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruak pentsioak hartzen dituztenek salbuespen moduan jasotzen

dituztela, lan bizitzako azken zatian behar den moduan kotizatzerik izan ez dutelako.

Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruak pentsiodunentzako laguntzei buruzko foru lege hau, horrenbestez, gure gizartean egoera okerrera duten sektoreetako bati zuzentzen zaio. Horri dagokionez, ez ditugu ahaztu behar alderaketa bidezko bi argudio; hau da, alde bate-tik, Nafarroak bezala jatorritzko gaitasun fiskala daukaten beste autonomia erkidego eta lurralde batzuetan foru lege hau baino lehen ere bertan ezarritako laguntzen antzekoak jasotzen zituztela. Eta bigarren alderaketa alargunen sektorearekin egin beharrean gaude; izan ere, haiei arreta emateko Nafarroako Parlamentuak bi foru lege eman zituen bi hileko epean.

Ezin da ahaztu justizia sozialaren eta alderaketa bidezko berdintzearen argudioak Nafarroako eragile sozial eta ekonomiko guztion erantzukizunean oinarritu behar direla, zeren eta jatorritzko gaitasun fiskal bat izateak berekin ekartzen baitu politika fiskalak ere izan beharko lukeen eduki soziala eta banaketa-justiziaren arabera izatea aintzat hartzea. Izan ere, politika fiskal aurrerakoi batek banaketa-justiziaren helburuak betetzeko eta bete ahal izateko ere ezinbestez behar du berehalako lotura eta korrelazioa eduki lan munduko ordainarazpen guztiekin; izan ere, ordainarazpen horiek gure gizartean halako parafiskalitate bat eratzen dute, zeina ezin baita konpartimentu estanko bat izan, fiskalitatearekin loturiko gizarte-ongizateko zerbitzuekin lotu gabea. Hori dela eta, erkidego moderno guztietan —eta horren adibide hurbilena Europako Batasuna bera da— Gizarte Segurantzaren kudeaketa, prestazioak eta kontrola deszentralizaturik daude, beharrian handiena duten sektoreei eta langileei ere komeni zaien moduan.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko laguntza emateko 500 toki gehiago jar ditzan berehala.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko laguntza emateko 500 toki gehiago jar ditzan berehala..

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko 500 toki gehiago jar ditzan berehala.

Zioen azalpena:

Abuztuan egindako inbestidura prozesuan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, bere eledunaren bitartez, lehentasunez gauzatu beharrekoak iruditzen zaizkion hamabi proposamen aurkeztu zituen. Nafarroako Gobernuako lehendakari Sanz jaunak, eztabaida hartan, neurriok bideragarriak zirela esan zuenez, eta kontuan hartuta lan-urte politikoa hasi dela dagoneko, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren aurrean izapidetu dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko 500 toki gehiago jar ditzan berehala.

Iruñean, 2007ko irailaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berehala profesionalak kontrata ditzan Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio hau: Nafarroako Gobernuak premiatzen da berehala profesionalak kontrata ditzan Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan

ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernuari exijitzen baitzaio berehala profesionalak kontrata ditzan Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko.

Zioen azalpena:

Abuztuan egindako inbestidura prozesuan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, bere eledunaren bitartez, lehentasunez gauzatu beharrekoak iruditzen zaizkion hamabi proposamen aurkeztu zituen. Nafarroako Gobernuari lehendakari Sanz jaunak, eztabaida hartan, neurriok bideragarriak zirela esan zuenez, eta kontuan hartuta lan-urte politikoa hasi dela dagoeneko, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren aurrean izapidetu dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio berehala profesionalak kontrata ditzan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan.

Iruñean, 2007ko irailaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berrizatzeko plan bat ezar dezan irakaskuntza publikoan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio hau: Nafarroako Gobernuak premiatzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berrizatzeko plan bat ezar dezan irakaskuntza

publikoan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko

bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernuari exijitzen baitzaio informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modernizatzeko plan bat ezar dezan irakaskuntza publikoan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan.

Zioen azalpena:

Abuztuan egindako inbestidura prozesuan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, bere eledunaren bitartez, lehentasunez gauzatu beharrekoak iruditzen zaizkion hamabi proposamen aurkeztu zituen. Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunak, eztabaida hartan, neurriok bideragarriak zirela esan zuenez, eta kontuan hartuta lan-urte politikoa hasi dela dagoneko, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren aurrean izapidetu dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modernizatzeko plan bat ezar dezan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta Nafarroako irakaskuntza publikoko ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan.

Iruñean, 2007ko irailaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru Komunitateko herritarrei AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea ahalbidetzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru Komunitateko herritarrei AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea ahalbidetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Allik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren urratsak egin ditzan 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea ahalbidetzeko.

Zioen azalpena:

Aurreko mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadan Nafarroako Autobidea eraiki zenetik, nafarrak bidesaria ordaintzera behartuta daude bide hori (lehen, A-15; orain, AP-15) erabiltzen duten bakoitzean Irurtzun eta "vasco-aragonesa" deituriko autobidearekiko (lehen, A-68; orain, AP-68) lotura bitarteko zatietan.

Egoera hori are larriagoa da laurogeita hamarrek hamarkadan nafar guztien zergekin aurre

egin behar izan baitzitzaion emakida-hartzailearen finantza-konpromisoek eragindako egoera zailari. Erabiltzaileek, horrela, autobidea erabilitako bakoitzean ordaintzen zuten; eta, gainera, zergekin, ustiaketaren beraren finantza-zailtasunak konpondu behar zituzten.

Baina, gainera, gertatu zen UPNren gobernuak, laurogeita hamarreko hamarkadan, bi jarduera garrantzitsu egin zituela Parlamentuan batere galdetu gabe. Batetik, emakida-hartzailearen ustiaketa-epeak luzatu zituen, hots, herritarrek bidesaria ordaintzen jarraitu beharreko epe luzea handitu eta autobidea libre uztea atzeratu egin zuen. Bigarrenik, Audenasaren titular izanda, borrokatu gabe onartu zuen PPren gobernuak Audenasaren kapitalaren % 50 enpresa pribatu bati saltzeko erabakia.

Gero, herritarrek autobidea doan erabiltzeko eskariak UPNko gobernuak behartu zuen aldatzera trafikoa erakartzeko zuen politika; horrela, bidesariak jaitsi ziren, bereziki trafiko pisuarentzako zirenak, baina bidesariei eutsi zitzairen eta erabiltzaile kopurua dezente handitu zen.

Nafarroan eraikitako gainerako autobide eta autobideak bidesaririk gabekoak dira (Lizarrar-Logroño autobidea, Zangoza-Jaca, Altsasu-Gasteiz/Donostia), eta hori bidegabea gertatzen da Nafarroako Erriberako eta Erdialdeko herritarrentzat.

Nafarroako Gobernuak, emakida hartu zuen enpresaren % 50aren jabea denez, eta, aldi bere-

an, eskumena duenez autobide horren emakidaren ustiaketarekin eta administrazioarekin zerikusia duten zenbait gaitan, posizio erabakigarrian dago autobidearen etorkizunari buruzko erabakiei dagokienez. Mozio honen helburua da nafarrek, aurrerantzean, aipatutako bidesaria ordaindu behar ez izatea, hogeita hamar urte baino gehiagoz aritu baitira hori ordaintzen. Dauden aukerak aztertu behar dira, hala emakida erreskatatzea, herritarrentzako doakotasuna izanen bailuke ondorio, nola txartel elektronikoaren erabiltzeko unean bertan gauzatuko litzatekeen zerga-arintzeak ezartzea, horrek ere, *de facto*, ordaintzeko salbuespena ekarriko bailuke Nafarroako herritarrentzat.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkuran izapidetzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar diren urratsak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei ahalbidetzeko AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, hala emakida erreskatatuz, nola, bestela, Nafarroako herritarrentzako sistema orokor bat ezarri bidesariaren zenbatekoaren adinako zerga-arintzea modu automatikoan gauzatuko diena bide hori erabiltzeko unean bertan.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio hau: Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan.

Zioen azalpena:

Nafarroako Foru Komunitateko merkataritza-ehunaren egoerak sorburu ditu sektorearen ekimena, herritarren eskaria, operatzaile berrien etorrera eta botere publikoen jarduna bera.

Merkataritzaren egoeraren errealitatea, gure inguruan gertatzen den moduan, herritarren beharren eta kontsumitzaileen gustuekin batera aldatzen da. Aisialdiaren eta kontsumoaren arteko harremana dugu seguruenik garrantzi handieneko faktorea.

Aitortu beharra dago, era berean, eragin handia dutela gizarte-dinamismoan eta herri nahiz hirien bizitzan merkataritzako ordutegiek, merkataritza-guneen kokalekuek, sektorearen egitura eta eskaintzak eta eskaintzaren beraren zenbatekoak.

Merkataritzaren errealitateak, baita ere, eragin handia du eskualdeko hirugarren sektorearen enpleguan, bide- eta komunikazio-azpiegituren beharrean eta mugikortasunean.

Dauden merkataritza-eskaintza motek eta herritarrek kontsumorako, aisialdirako eta mugikor-

tasunerako dituzten ohituretan, enpleguan eta berrikuntza-gaitasunean, bai eta jarrera ekintzaileen sustatze-gaitasunean ere, eskaintza-mota horiek dituzten ondorio zuzenek komenigarria egiten dute merkataritza-sektorearengan eragiten duten politika publikoak koordinatzea, bai eta merkataritza-sektorea eta -ehuna sustatzeko estrategia orokor baten baitan artikulatzea ere. Parte hartzeko, koordinatzeko eta elkartzeko gune bat gauzatu beharra dago merkataritza handientzat nahiz txiki-entzatek, kontsumitzaileentzat, eta zerikusia duten arlo publikoetako eta administrazioetako kudeatzaile publikoentzat, foru erkidegoko merkataritzari buruzko estrategia orokorra diseinatu eta administrazioetako duen gune bat.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkuran izapidetzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean "Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia" sortu eta abian jar dezan, erakunde hori hainbat aferatan parte hartzeko, elkartzeko eta koordinatzeko gune izan dezaten merkataritzako eragile eta operatzaileek, kontsumitzaileek, sindikatuek nahiz enpresaburu-elkarteek eta zerikusia duten administrazio publikoek, merkataritzaren egungo egoeraren azterketan, konponbideen bilaketan, politika publikoen zehaztapenean, estrategia orokor baten prestaketan eta Foru Erkidegoko merkataritzako sektorearen etorkizuneko proiektioan.

Iruñean, 2007ko irailaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Guraso Konfederazio Katolikoari (CONCAPA) idatziz eska diezaion legean jasotako aginduak ez betetzera bultzatzeari uzteko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozio hau: Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Guraso Konfederazio Katolikoari (CONCAPA) idatziz eska diezaion legean jasotako aginduak ez betetzera bultzatzeari uzteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Hezkuntza Batzordean:

Zioen azalpena:

Gurasoen Konfederazio Katolikoak (CONCAPA) gutuna bidali die Nafarroako guraso guztiei kontzientzia eragozpena aldeztuz Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza izeneko ikasgaia dela eta.

Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntzaren ikasgaia azken hezkuntza-erreformaren lortu garrantzitsuenetakoa bat da. Konstituzioko 27.2 artikulua aplikazioa dakar berekin horrek, artikulua horrek honakoa baitio hitzez hitz: "Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak, eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz".

Badira bi estrategia, ederki asko bateratuak, ahal hainbat zailtasun jartzen dituztenak ikasgai hori ez emateko, mugatzeko eskola curriculumean duten garrantzia eta ikasgaiak berezkoa duen espiritua kentzeko: batetik Concaparena eta zenbait gotzainena bestetik.

Ikastetxe katolikoek lortu dute ikasgai hori karrakata bat izatea, nahierara egokitu baitute, eta ikasgaiak, Gobernuak behin eta berriz amore ematearekin, erabat galdu du hasierako orientazio laiko argia.

Edonola ere, Concapak aholkua eta laguntza eskaintzen die beren seme-alabek ikasgai hori jaso ez dezaten nahi duten gurasoei, eta, aldi berean, aita-amei proposatzen die ez dezatela bete legean jasotako agindua.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua ustez, aipatutako elkarte katolikoa neurri zehatzetan sartzen da gobernuaren eskumeneko den arlo batean, hala gobernu autonomikoen nola zentralaren arlo batean, eta, horrenbestez, honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Gurasoen Konfederazio Katolikoari (CONCAPA) argi eta garbi eska diezaion legean jasotako aginduak ez betetzera bultzatzeari uzteko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Gurasoen Konfederazio Katolikoari ken diezazkion ematen dizkion dirulaguntza guztiak, baldin eta legean jasotako aginduak ez betetzeko jarrerari eusten badio.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun kontseilariak kontzientzia eragozpenari heltzen ez dioten medikuen zerrenda bat agertzen duen gutun bat jaso duen jakitekoa.**MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Osasun kontseilariak kontzientzia eragozpenari heltzen ez dioten medikuen zerrenda bat agertzen duen gutun bat jaso duen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran eztabaida dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena:

Haurdunaldiaren borondatezko etetea, lege ezarritako kasuen barrenean, ez da Nafarroan egiten, Nafarroako Gobernuaren esanetan, langile mediko guztiek kontzientzia eragozpenari heltzen diotelako.

Hala eta guztiz ere, El País-en joan den irailaren 17an argitaratu zen kazetaritza-erreportaia batean esaten zen sendagile batzuek gutuna bidalia ziotela Osasun kontseilariari "eragozleak ez direla adierazteko". Informazio horrek gehitzen zuenez kontseilaria ez zegoen horren jakinarenean gainean.

Aurrekoa entzunda, foru parlamentari honek uste du Nafarroan aukera medikoa badagoela haurdunaldia borondatez eteteko, Nafarroako emakumeek beste erkidego bazuetara erromes moduan joan beharrik izan ez dezaten.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

Egia al da kontseilariak kontzientzia eragozpenari heltzen ez dioten eta, horrenbestez, osasun prestazio hori emateko prest leudekeen medikuen zerrenda bat biltzen duen gutun bat jaso duela?

Iruñean, 2007ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, euskaraz hitz egiten den beste lurralde batzuetako erakunde publikoekin euskararen arloko lankidetzaren harremanak izateari dagokionez Hezkuntza kontseilariak dituen asmoei buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, euskaraz hitz egiten den beste lurralde batzuetako erakunde publikoekin euskararen arloko lankidetzaren harremanak izateari dagokionez Hezkuntza kontseilariak dituen asmoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran eztabaida dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

María Luisa Mangado Cortes legebiltzarkideak, Nafarroako Legebiltzarreko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egin nahi du Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz ihardesteko.

Hezkuntza Kontseilariak, Nafarroan bezala euskara mintzatzen den bertze lurraldeetako erakunde publikoekin euskararen alorrean ba al du lankidetzaren harremanik izateko asmorik?

Hala bada, zein da haren plana: zein alorrean, zein helburuz, zein epetan?

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, Nafarroako Gobernuak udan geratu diren nafarrentzat eta turistentzat programazio egokirik ez antolatzearen arrazoiei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak udan geratu diren nafarrentzat eta turistentzat programazio egokirik ez antolatzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran eztabaida dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilariak Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz ihardesteko.

2007ko udan hagitik eskasa izan da Nafarroako Gobernuak antolatu duen kultur programazioa Iruñean, Iruñerrian, eta, oro, har Nafarroa osoan. Zergatik ez du Nafarroako Gobernuak behar bezalako programazioa prestatu udan hemen egon diren nafarrei eta turistei zuzendua?

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari Mendillorriko BHIaren eraikinerako eskaturiko obra baimenaren, jarduera sailkatuaren baimenaren eta irekitzeko baimenaren datei eta edukiari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari Mendillorriko BHIaren eraikinerako eskaturiko obra baimenaren, jarduera sailkatuaren baimenaren eta irekitzeko baimenaren datei eta edukiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran eztabaida dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan José Lizar-

be Baztánek Mendillorriko BHIa abian jartzeari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

Galderaren azalpena:

Mendillorriko BHIa ikasturte honetan ireki izanak ikasleen gurasoen protesta eragin du; ikusitako akatsek eta erabiltzen diren instalazioen gabeziek, larriagoak gertatzen baitira eraikinaren gainerako zatian oraindik lanean ari direlako, eragin dituzte, hain zuzen, gurasoen protestak. Hori dena aipatutako BHIa sortzea eta eraikitzea berandu erabaki izanaren ondorioa da.

Galderaren testua:

Noiz eskatu zizkion Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari Mendillorriko BHIaren eraikinarentzako obra lizentzia, jarduera sailkatuen lizentzia eta irekitzeko lizentzia? Noiz eman zituen lizentziak udalak?

Iruñean, 2007ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Portugalia enpresak Iruña-Lisboa hegaldiak eteteko eta ondoren berriro abian jartzeko izan dituen arrazoiei buruzkoa.

JOSÉ M^a VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José M^a Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Portugalia enpresak Iruña-Lisboa hegaldiak eteteko eta ondoren berriro abian jartzeko izan dituen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Komunikabideen bidez berriki jakin dugunez, Iruñetik Lisboarako hegaldiak eteteko asmoa du Portugaliak; erabaki hori irailaren 15ean gauzatzekoa omen zen. Hori iragarri ondoren, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak esan zuen Portugalia enpresak iritziz aldatu eta Noain eta Lisboa artean astero egiten diren hamabi hegaldiak berrezarriko zituela.

Egoera hori kezkarria da Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearentzat,

nolabaiteko ziurgabetasuna eta eragozpenak sortzen baitizkie zerbitzuaren balizko erabiltzaileei; hori horrela, egokia iruditzen zait honako galdera hauek egitea, idatziz erantzun daitezten:

– Zer arrazoi objektibok eragin zuten Portugalia enpresak Iruñetik Lisboarako hegaldiak etetea eta, ondoren, horiek berriro abian jartzea?

– Zer neurri hartu ditu, edo pentsatu du hartzea kontseilariak Portugalia enpresarekin hitzartua bete dadin, alde bakarreko erabakiak direla eta ez daitezten berriro horrelako egoerak gerta eta ez dakizkien eragozpen gehiago eragin erabiltzaileei?

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: José María Vázquez Royo

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuterako Virgen de la Cabeza ikastetxean 2007-2008 ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak abian jartzeko asmorik duen jakitekoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuterako Virgen de la Cabeza ikastetxean 2007-2008 ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak abian jartzeko asmorik duen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau egin du Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Galdera:

Gobernuak eta sindikatuek Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ituna sinatu zuten. Itun horretan, ikastetxeei buruzko III. ataleko 2. puntuan hain zuzen, non hizpide hartzen baitira irakasleen lanaldia, egutegia eta ordutegia, honakoa ageri da, besteak beste:

“Hezkuntza Departamentuak konpromisoa hartzen du ikastetxeetako eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontua handitzeko itunaren indarraldian zehar...”

Ikasturte honetan, gure erkidegoko Lehen Hezkuntzako lau ikastetxetan jarri dute abian, probatzeko, lanaldi etengabea.

Orain arte, ez da ezer ere zehaztu Tuterako Virgen de la Cabeza ikastetxean egin beharreko jarduerari buruz; beraz, honakoak erantzutea nahi dugu:

Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horretan 2007-

2008 ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak abian jartzeko?

Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eskolaz kanpoko inongo jarduerarik proposatzea arratsaldeko 4etatik aurre-

ra, lanaldi etengabea probatzen ari diren ikastetxe-
etarako?

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren lehentasunen artean Zangozako ikastetxearen egoera aztertzea dagoen jakitekoa, beharrezkoa baita eraikuntza-azpiegitura egokiaz hornitzea.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren lehentasunen artean Zangozako ikastetxearen egoera aztertzea dagoen jakitekoa, beharrezkoa baita eraikuntza-azpiegitura egokiaz hornitzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko itunean (2007-2011), ikastetxeen sare publikoa modernizatzeko eta

horien hornidura eta baliabideak hobetzeko atalean, honakoa ageri da, besteak beste "Hezkuntza Departamentuak konpromisoa hartzen du ikastetxeetako behar diren instalazioak eraikitze, handitze edo moldatzeko, honakoak helburu: eskolatze-behar berriei erantzutea, eta hirigintza-berrantolamenduaren ondoriozko ikasle-
en eskolatzeari aurre egitea."

Itun horrek Eskola eraikinei buruzko plan zuzendaria aipatzen du ondoren; planak urteko 15 milioi euroko finantzaketa du 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietarako, eta, bertan, 2009-2010 epean amaituko diren obrak jasotzen dira.

Uneotan, zenbait ikastetxe, Zangozako esaterako, asko ari dira handitzen, eta honakoari erantzutea nahi dugu:

Hezkuntza Departamentuaren lehentasunen artean al dago Zangozako ikastetxearen egoera aztertzea, eta, gela berrien beharra duenez, lehenbailehen jardutea eta ikastetxe hori eraikuntza-azpiegitura egokiaz hornitzea?

Eskola eraikinei buruzko plan zuzendaritik orain arte 2006an eta 2007an gauzatutakoen zerrenda nahi nuke, bai eta 2008rako dagoen aurreikuspena ere.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, 2002-2009 urteetarako errepideei buruzko II. plan zuzendarian aurreikusitako jardueren betetze mailari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, 2002-2009 urteetarako errepideei buruzko II. plan zuzendarian aurreikusitako jardueren betetze mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Gaia: 2002-2009 urteetarako errepideei buruzko II. plan zuzendariaen betetzea.

Zer betetze maila dute 2002-2009 urteetarako errepideei buruzko II. plan zuzendarian aurreikusitako 150 jarduerak? (Adieraz bedi zehatz-mehatz zein egoeratan dagoen jarduera bakoitza).

Iruñean, 2007ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas.

Galdera, aireko ozonoari buruzko 1796/2003 Errege Dekretuari dagozkion urteko txostenei buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, aireko ozonoari buruzko 1796/2003 Errege Dekretuari dagozkion urteko txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

Gaia: Aireko ozonoari buruzko 1796/2003 Errege Dekretua.

1.- Zergatik urteko txostenetan ageri dira arau hori betetzen duten lekuak eta ez, ordea, betetzen ez dutenak, hori izaki, azken batean, araudiak agindutakoa?

2.- Zergatik urteko txostenean, eta dagoeneko hiru egin dira, ez da jaso maila-gaiztatu eraginei buruzko inongo baloraziorik, kontuan izanda, bereziki, era isolatuan gertatuakoa balira zailagoa litzatekeela balorazioa, baina, aldiz, urtero-urtero gertatzen direla gaiztatuak?

3.- Zergatik ez dira urteko txostenak besterik egin -horiek dira argitaratzen direnak- eta ez da

egin aipatutako artikuluko b), c), e) eta f) letretan jasotako beste inongo txostenik, nahiz eta hiru urte baino gehiago eraman datu jasotzen?

Iruñean, 2007ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

33/2007 Ebazpena, irailaren 21ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena, María del Pilar Álvarez Asiáin arartekoaren aholkulari tekniko izendatzen duena.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 40. artikuluan xedatutakoaz baliatuz,

EBATZI DUT

Lehena.- María del Pilar Álvarez Asiáin andrea behin-behineko langile izendatzea arartekoaren aholkulari teknikoaren eginkizunak betetzeko; izendapenak 2007ko irailaren 21etik aitzina izanen ditu ondorioak.

Bigarrena.- Izendapenak dakarren gastua gastuen aurrekontu indardunaren "Behin-behineko langileen lansariak" izeneko 110 kontusailaren kargura ordainduko dela xedatzea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunari helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 21ean

Nafarroako arartekoa: Francisco Javier Eneriz Olaechea

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	